



U.D. LA MERCED K.B.

Ap. De Correos: 424

48080 - Bilbao

Tfno: 659134350

E-mail: [club@udlamerced.com](mailto:club@udlamerced.com)

[www.udlamerced.com](http://www.udlamerced.com)



**UD LAMERCED KB  
ETA  
BILBOKO BEGOÑAZPI- MERCED  
FKT  
ALKARTEEN ARTEKO BARNE-  
ERREGIMENENKO ARAUDIA**

## **UD LA MERCED KB eta BILBOKO BEGOÑAZPI- MERCED FKT alkarteen arteko barne-erregimeneko araudia**

### **I Titulua – Xedapen orokorrak**

#### **1. Artikulua- Helburua**

Barne-erregimeneko araudi honen helburua Unión Deportiva La Merced Kirol Batasuna eta Bilboko Begoñazpi-Merced Futbol Kirol Taldearen (aurrerantzean, 'Klub') arteko barne-antolamentua eta funtzionamentua arautzea da, indarrean dagoan kirol-legediak araututakoa betez eta Klubeko Estatutuetan zehazten danari erabat jarraituz.

Hori dala eta, Klubak igorritako edozein gomendio, arau, zigor edo ekintzaren helburua bere partaide guztien nortasunaren garapen egokian eta giza-balioetan ekarpena egitea da, futbolaren bitartez.

Zentzu horretan, Kluba osotzen daben kide guztien zeregina da Klub barruko zein kanpoko bizikidetzarauei errespetua erakustea, jarraian aitatzen diran betebeharretan zehazten diranak;

- Klubeko kide guztien kontzientzia-askatasuna, duintasuna eta intimidadea errespetau, baita entidadean garatzen duten funtzinoarena be.
- Ez baztertu Klubeko kiderik jaiotze, arraza, sexu edo beste edozein giza-egoera zein egoera personal dala eta.
- Klubeko Estatutuak errespetau.
- Klubeko azpiegiturak eta ondasun materialak errespetau eta modu egokian erabili.
- Barne-erregimeneko araudia errespetau.
- Klubeko organo unipersonalek eta epaileek hartutako erabagiak errespetau, norbere eskubideak urratzen dirala uste danean berauei kontra egiteari itxi barik.
- Klubeko beste kideakaz alkarlanean jardun, alkarteko kirol prestakuntzaren garapenari eta bizikidetzeari mesede egiteko helburuagaz.

#### **2. Artikulua- Aplikazino-eremua**

Araudi hau eskola-arloko futbolari zein federazino-arloko futbolari aplikauko jako, honako eremu honeetan:

##### **PERSONALA:**

- Klubean inskribautako kirolariei, izen-emotea ofiziala danetik baja gauzatzen danera arte.
- Klubeko zuzendaritzako eta lantalde teknikoko kide guztiei.
- Klubeko partaide diran kirolari guztien guraso zein legezko tutoreei, euren seme-alabek Klubean izena emoten dabenetik baja gauzatzen danera arte,

aplikagarriak izan daitezkezan arloetan.

- Edozein arrazoi dala medio, aldi baterako Klubeko partaide diran persona eta entidade guztiei.

#### ESPAZIALA:

- Klubaren kirol-azpiegiturak, Artxandako futbol-zelaian kokatzen diranak, San Roque Bidea, z/g, Sondika.
- Edozein kirol-azpiegitura, lokal edo espazio zeinetara Klubeko partaide guztiak zein batzuek joan daitezkezan, noizean behin zein sarritan, kirol-ekintzak burutzeraz.

#### DENPORAZKOA:

- Kirol-ekintzak irauten dauen denpora arruntean, jagokon egutegiaren arabera aurreikusita.
- Urte guztian, Klubeko teknikarien zein Klubak kontratautako beharginen menpe dagoan edozein ekimen gehigarriren garapenean bada.

## II Titulua- Osoketea eta Egiturea

### 1. Kapituluak - Gobernu-organoak

### 3 Artikulua.- Egiturea

#### 3.1.-Klubak honako gobernu-organoak izango ditu:

- Elkargoko kideak; Batzorde Orokorra eta Zuzendaritza Batzordea.
- Unipersonalak; Lehendakaria, Lehendakariordea, Idazkaria eta Batzordekideak.

**3.2.-** Jarduerea garatzeko, Klubak kirol-koordinatzaileak, entrenatzaileak, taldeko ordezkariak eta, adinez txikiak diran taldekideak daukiezan taldeen kasuan, gurasoen ordezkariak batzen dituan antolamolde berezia be ezarriko dau.

**3.3.-** Klubeko egiturea osotzen daben instantzien oinarrizko erantzukizunak honakoak dira:

- Taldeetako kide guztien prestakuntza teknikoa zein taktikoa, baita kirol-izaerea be.
- Jokalarien eta taldeen kudeaketea, jarraipena eta kontrola, maila eta adin guztietan.
- Klubaren ordezkartzea lehiaketak arautzen dabezan federazino-estamentuen aurrean.
- Klubaren kirol-entzutea mantendutea bertako edozein taldek jokatzen daben maila eta kategoria guztietan.

### 4. Artikulua - Jokabide-printzipioak

**4.1.-** Gobernu-organoen ardurea izango da Klubeko ekintza guztiak beronen Estatutuen arabera garatzea, aurreikusitako helburuak modu egokian gauza daitezkean bermatzeko.

**4.2.-** Klubeko gobernu-organoek, euren konpetentzia-arloaren barruan, futbolarien, teknikarien eta auxiliarren zein gurasoen eskubideak bete daitezcan bermatuko dabe; eta, baita, euren jagokezan betebeharrak be. Bide horretan, Klubeko kideen parte-hartze aktiboa erraztuko dabe, entidadearen kudeaketan eta ebaluazinoan.

**4.3.-** Zuzendaritza Taldearen barruan, DIZIPLINA BATZORDEA dalakoa sortu ahal izango da. Batzorde horren ardurea, Zuzendaritza Taldearen esku-ixtearen bitartez, hutsegite larriak edo oso larriak jasoten dabezan espedienteak ebatzea izango da.

**4.4.-** Konfigurazinoari, konpetentzien mugaketari eta funtzinoei jagokenez, zein Klubeko gainontzeko organoen funtzionamentuaren kasuan, Klubeko Estatutuaren araututakoa bete beharko da.

## 2. KAPITULUA- BESTE ORGANO UNIPERSONALAK

### **5. Artikulua-** Zuzendaritza Batzordeko kideena

**5.1.-** Zuzendarien ekintzen oinarrian beti egon behar da Klubeko buru izatearen baldintzea eta, filosofia horri jarraituta, ezinbestean, lehiaketak baino lehenago, bitartean edo amaitu ondoren zein euren ordezkaritza-kargua beteten dagozan edozein unetan, euren jokabidea eredugarria izan behar da.

**5.2.-** Halaber, Zuzendaritza Batzordearen partaideak Klubeko gainontzeko kideen eskubide eta betebeharren betete egokiaren bermatzaile dira. Hori dala eta, baliabide zehatzak erabili beharko dabez kirol-ekintzea modu egokian garatzeko.

### **6. Artikulua-**Lehiaketako taldeen ordezkariena

**6.1.-** Zuzendaritzako kideen kasuan legez, garatzen dabezan ekintzatan jokabide eredugarria izan behar dabe, ordezkari-lanak beteten dabezan persona horreek, partiduetan, Klubeko ordezkari baliagarriak eta legezkoak diralako.

**6.2.-** Lehiaketatan taldearen ordezkari-lanak beteten dabezan personek euren taldeak parte hartzen daben Lehiaketako Araudia ezagutu behar dabe eta araudi horri zehaztutako funtzinoak garatu zein Klubeko organoek araututako kirol-erispideak bete beharko dabez.

**6.3.-** Halaber, lehiaketatan, ordezkarien betebeharrak izango dira;

- Azpiegituren erabilera egokia bermatu, bai lekuko taldeari jagokonez zein kanpoko taldeari jagokonez.
- Klubaren izena leku onean itxi.
- Talde lehiakidea osotzen daben kideei jagoken errespetua izan eta jokalari guztien aurrean jokabide eredugarria erakutsi.
- Jokalariak bideratu eta zaindu, euren zereginak ahalik eta egokien bete dagiezan.

### **7. Artikulua-** Kirol-koordinatzaileena

**7.1.-** Klubak Kirol Koordinatzaile bat edo gehiago izan leikez, Zuzendaritza Batzordeak erabagiten dabenaren arabera.

**7.2.-** Kirol Koordinatzailearen kompetentziak honakoak dira:

- Zuzendaritza Batzordearen eskuordetzez eta bere agintaritzapean, jagokon kirol-arloko lan-talde teknikoa gauzatu.
- Berriazko Kirol Programea eta Klubaren Urteko Programazino Orokorra eratu, ondoren Zuzendaritza Batzordeak onar dagian, eta berau bete daiten bermatu, helburu hori beteteko, bertan zerrendatzen diran ekimen guztiak koordinatuz.
- Teknikarien zeregina koordinatu eta zuzendu, Formazino/Teknikazino Planean jasoten danaren arabera.
- Bizikidetasun-arauak betetearen eta araututako zein aparteko ekintzetan teknikariek eta kirolariek ordutegia zorrotz betetearen erantzule izan.
- Kirol-formazino planak martxan jarri eta berauen jarraipena eta ebaluazinoa egin.
- Kirol-ebaluazino bilerak deitu eta zuzendu.
- Etorri ez diran teknikarien lan-jarduerak antolatu.
- Gaixorik dagozan edo istripuren bat izan daben kirolariak modu egokian eta hainbat arinen zaindu dagiezan arduratu, horretarako beharrezkoak diran neurriak hartuz.
- Ekintza osogarriak antolatu eta gainbegiratu: entrenamentu bereziak, berbaldiak, kirol-jardueratara bertaratzea, txangoak, talde-bilerak, etab.
- Egokitutako baliabide materialen erabilera ahalik eta zuzenena izatea bermatu, azpiegitura finkoa zein material apurkorra izan.
- Hilero, Klubeko Zuzendaritza Batzordeari bere kargu dagozan teknikari edo kirolarien ez-agertzei buruzko informazinoa emon.
- Teknikarien lana koordinatu, bai helburu-mailan, baita prozeduran zein metodologian be.
- Kirolarien antolaketea erraztu eta Klubean euren parte-hartzea bultzatu.
- Zuzendaritza Batzordeak agindutako edozein jarduera bete, beti be bere eskuduntzakoa danean.

**7.3.-** Kirol Koordinatzaileak Zuzendaritza Batzordeak izentauko ditu eta euren kargua itxiko dabe uko egiten badabe, Zuzendaritza Batzordeagaz izenpetutako akordioa amaitzen bada edota Zuzendaritza Batzordeak holan erabagi ezkerero.

## **8. Artikulua-** Teknikariena eta entrenatzaileena

**8.1.-** Teknikariak eta entrenatzaileak kirol arloan irakaskuntza-lanen bat gauzatzen daben Klubeko kideak dira. Lan horren helburua Klubak bere Estatutuetan araututako hezkuntza eta kirol jomugak gauzatzera zuzentzen da.

**8.2.-** Kirol-teknikarien eta entrenatzaileen izentapenaren ardurea Klubaren Zuzendaritza Batzordearena da, Kirol Koordinatzailearen proposamenean oinarrituko dana.

**8.3.-** Teknikariek eta entrenatzaileek honako eskubide honeek izango ditue:

- Bideratzen jaken lan-taldeen barnean, euren funtzinoa beteteko, beti be Klubeko Estatutuak betez.
- Klubaren zein bere irudiaren inguruan sortzen diran barriak ezagutzeko.
- Klubeko gainontzeko estamentuetako kideen partetik jarrera zuzena eta egokia jasoteko.
- Klubeko materialak eta azpiegiturak erabiltzeko, beti be helburu zehatzakaz eta erabilera-arauak errespetata.
- Eskaerak, iradokizunak eta arrangurak aurkezteko, idatziz, Klubeko atal unipersonalen edota epaileen aurrean.
- Momentuan interesgarritzat jotzen diran etenik bako hobekuntza-ekintzetan parte hartzeko, koordinatzailearen bitartez kudeauta eta Klubaren aldetik erraztasun guztiak tarteko dirala.

#### **8.4.-** Teknikariek eta entrenatzaileek hurrengo eginbeharrak daukiez:

- Euren ardurapean dagozan ekintzen urteko egutegia egin eta, jagokon Koordinatzaileak onartu ondoren, ezarritako programea bete eta garatu.
- Antolatutako ekintza guztietan eta zerbaitetarako berenberegi deitua izan dan kasu guztietan parte hartu, justifikautako arrazoiak emoten diran kasuetan izan ezik.
- Maila personalean zein kirol-teknikari moduan, Klubeko Estatutuakazko eta euren funtzinoaren garapenagazko jarrera duina eta errespetagarria izan, baita Klubeko estamentu desbardinakazko eta, batez be, kirolariakazko hartu-emonetan be.
- Konpetentziaz, zehaztasunez eta puntualtasunez garatu une bakoitzean jagokozan ekintza eta zereginak.
- Kirolarien aholku-eskeari erantzun, euren esfortzua suspertu, alkarbizitza erraztu eta Klubeko Estatutuetan azpimarratzen diran balioak garatzen lagundu.
- Kirolarien gurasoen aholku-eskeari erantzun, euren konpetentziapean dagoan arlo hezitzailea partekatzeko helburuagaz.
- Hobetze-ikastaroetan parte hartu, hobekuntza etenbakoa izan dagian.
- Entrenamentuen egunerokoa bete, arlo teknikoko datuak zein kirolarien etortze eta hutsegiteak edo jarrera arlokoak jasoz.
- Bertan dagozan bitartean, kirol-eremua garbi eta ordenatuta izan.
- Klubak ezarritako kirol-ekipamentua erabili, momentuan momentuko ekintzari egokituta eta jagokon kirol-muetak eskatzen dauena betez.
- Kontrolau eta, ondoren, entrenamentuetan erabilitako kirol-materiala jagokon lekura bueltau, beti be ordena mantenduz.
- Duxen eta aldagelen erabilera kontrolau, batez be entrenamentu-saioen eta partiduen amaieran, dana ordenean dagoala baieztetako.
- Deialdietara sasoiz ailegau.
- Entrenamentuetan eta partiduetan, jokabide eredugarria izan.
- Entrenamentu zein partiduen deialdi bakoitzean, arlo teknikoei jagokezan erabagi guztien arduradun nagusia izan, baita zigorrena zein jokatzen diran minutuena be, Kirol Koordinatzailearen gainbegiratzea kontuan izanda.
- Zuzendaritza Batzordeak berari jagokon edozein arlotan hartutako erabagiak errespetau eta bete.
- Kirol Koordinatzaileak programa, metodologia, ebaluazio-erispide, gitxieneko helburu zein beste hainbat arlotan ezarritako araudia bete.

## **9. Artikulua- Kirolariena**

### **9.1.- Kirolariek honako eskubideak daukiez:**

**9.1.a.-** Euren nortasunaren erabateko garapena bermatuko dauen prestakuntzea jasoteko. Eskubide hori gauzatu ahal izateko, kirolariaren heziketeak honako honeek aintzat hartu behar ditu:

- Alkarbizitza demokratikoaren barruan, oinarrizko eskubideen eta askatasunen errespetua eta tolerantziaren eta askatasunaren gauzatzea.
- Gizarte baten parte diran gizakien erabateko formazinoa lortzeko, errespetuan eta gizalegean oinarritzen diran arauak bereganatuz.
- Afektibotasunaren, autonomia personalaren eta besteakazko hartu-emonen garapen harmonikoa.
- Osasunaren babesean, bizitza osasungarria bermatzen daben ekintzak eta gaitasun fisikoen garapenean oinarritzen dan hezkuntzea bultzatu.
- Klubaren kirol-hezkuntza hobetzen lagundu.

**9.1.b.-** Kirol-maila desbardinetara ailegetako aukera berberak izateko. Beraz, ez da egongo mugaketarik ez emaitzei jagokonean ezta norberaren kirol-trebetasunari jagokonean be. Eskubide hau beteten dala bermatzeko, Klubak ondorengo erraztasun honek emoteko konpromisoa hartzen dau;

- Talde bakotxak behar dabezan teknikari-trebatzaileak.
- Kirol azpiegitura egokiak.
- Kirol-material egokia.
- Kirol-hornikuntzea.
- Entrenamentu-ordutegi zehatza, hautazko aldaketarik barik.
- Talde guztien parte-hartzea lehiaketa ofizialetan.
- Futbolaren irakaskuntza maila guztietan (teorikoan, praktikoan, taktikoan...)
- Kirolariaren formazino integrala bermatuko daben kirol-hezkuntza egokia.

**9.1.c.-** Bere osotasun fisikoa eta morala zein duintasun personala errespetetako, irain fisiko eta moraletatik urrun.

**9.1.d.-** Bere kirol-jarduera segurtasun eta garbitasun baldintza egokietan garatzeko.

**9.1.e.-** Clubaren funtzionamentuan parte hartzera, talde bakotxeko kapinainen izentapenaren bitartez.

- Kapitainen izentapena holan gauzatuko da;

+ Talde bakotxak, entrenatzailearen proposamenez eta jokalaria guztien arteko botazinoa egin ondoren, hiru kapitain izentauko ditu, beti be jasotako botukopuruaren ordena errespetatuz.

+ Egoera bereziak tarteko badira, Kirol Koordinatzaileak izentapen-sistemea aldatu ahal izango dau.

+ Koordinatzaileak eta entrenatzaileak balorau ondoren, egoera jakin batzuetan, kapitain kargua daukan kirolariak bere funtzinoa ondo beteten ez dauela

eretxi ezker, kargu hori kendu ahal izango jako.

- Kapitainek bete beharreko funtzinoak honakoak izango dira;

- + Kapitainak entrenatzailearen eta taldeko kideen arteko zubi-lana egingo dau eta, aldi berean, taldearen bozeroalea be izango da.

- + Egoera zehatz batzuetan, eta ezinbesteko arrazoiren bat tarteko, entrenatzaileak burutzen dituan lanak egin beharko ditu, hala nola, beroketa-aldia zuzendu, entrenamentu-saioaren zati bat gidatu, partiduetan aldaketak egin...

- + Taldekideek unean-unean partiduen ordutegiei, deialdiei, joan-etorriei zein bestelako gaiei buruzko informazioa helarazoteko ardura izango dau.

- + Jarrera, ardura, esfortzu eta motibazio arloan, taldearen gidaria eta eredia izango da, bai entrenamentu-saioetan, bai partiduetan eta baita taldea dagoan edozein egoera zein lekutan.

**9.1.f.-** Klubeko partaide guztiek ezinbestean errespetu behar dabez barne-araudi honetan jasoten diran kirolarien eskubideak.

**9.2.-** Kirolariek honako **betebeharrak** daukiez:

**9.2.a.-** Aurretik zehaztutako entrenamentu-saioetara behar dan moduan jantzita joatera, Clubak zehaztutako ekipamentuagaz -futbolera bere beregi diseinuta dagoana-, lan egiteko gogoagaz eta arlo guztietan ikasteko eta hobetzeko esfortzua egiteko borondateagaz.

**9.2.b.-** Deituta dagozan partidu guztietara Clubak eskainitako kirol-ekipazioagaz jantzita joatera. Jantzera hori identifikazio-elementua izanik, kirolariak behartuta dagoz berau eroter, zehaztutako jarraibideak betez.

**9.2.c.-** Kirolariak itxura ahalik eta garbiena eta txukunena izaten ahaleginduko dira. Zentzu horretan, partidu eta entrenamentu-saio guztien ondoren, derrigorrezkoa da dutzatzea.

**9.2.d.-** Horretarako deituta egon ez arren, taldeak etxean jokatzen dabezan partidu guztietara joatea.

**9.2.e.-** Entrenamentu-saioetara zein partiduetara joan ezean, hutsegitearen arrazoiak justifikatu, behar dan besteko aurretiaz entrenatzaileari jakinarazota -gitxienez, entrenamentu-saioa edo partidua baino egun bi lehenago-, beti be ezinbesteko arrazoiren bat ez dagoanean tartean. Honako arrazoi honek justifikata dagoz:

- Gaixotasuna.
- Familia-arrazoiak.
- Lan-arrazoiak.
- Ikasketa-arrazoiak, eskola-ordutegia dela eta.
- Entrenatzaileak edota Kirol-Koordinatzaileak hala eristen badau.

Aurreko arrazoietan jasoten ez diran arrazoiak ez dira justifikazio moduan onartuko, ezta beste ekintza batzuk be. Edozein kasutan, entrenamentu-saioetara joaten diran



kirolariek lehentasuna izango dabe lehiaketan parte hartzeko entrenamentu-saioretara huts egiten dabenen aurretik, asistentzia-hutsegitearen arrazoia edozein izanik.

**9.2.f.-** Entrenamentu-saioretara zein deituta dagozan partiduetara orduan heltzea eta berauek amaitu arte bertan egotea.

**9.2.g.-** Klubaren kirol-materiala eta azpiegiturak zaintzea, erabilera egokiaren eta zuzenaren bitartez. Helburu hori beteteko, gai horren inguruan gertatzen dan edozein arazo entrenatzaileari jakinarazo.

**9.2.h.-** Hala eskatu ezker, Klubak eskainitako ekipazinoa egoera onean bueltau.

**9.2.i.-** Entrenamentu-saioretan, partiduetan, beste kirolariakaz hartu-emonetan, taldeko kideakaz, epaileakaz, entrenatzaileakaz, ordezkariakaz eta kirol-ekintzeagaz loturea daukan edozein personagaz jarrera zuzena eta errespetuzkoa erakutsi.

**9.2.j.-** Denporaldian zehar, futbolaren garapenaz arduratu, taldearen kirol zein hezkuntza interesak urratu barik eta teknikariek ikaskuntza-arloan eskaintzen dabezan jarraibideei kasu eginez.

**9.2.k.-** Teknikariek deitu ezker, goiko mailako kirol-taldeagaz joan. Horretarako, jokalaria aurretiaz ohartarazota egon beharko da.

## **10. Artikulua-** Gurasoena eta Tutoreena

**10.1.-** Kirolari batek Klubean izena emoten dabenean, alkarteak eskaintzen dituan ekintzen jakitun izango dira kirolari horren gurasoak edota legezko tutoreak eta, berenberegi, Estatutuek zein bestelako jarraibideek araututakoa onartzeko berbea emon behar dabe, konpromezu hori euren seme-alabetara zein karguan daukiezan adinez txikiak diranetara luzatuz.

**10.2.-** Gurasoek zein legezko tutoreek euren ardurapean dagozan adinez txikiak diran kirol- zein jarrera-garapena ezagutzeko eskubidea izango dabe.

**10.3.-** Arautegi honetan jasoten diran gurasoen eskubide eta betebeharrak, berauek egon ezean, kirolariaren tutoreari edota legezko ordezkariari luzatuko jakoz.

**10.4.-** Denporaldi bakotxaren hasieran, Klubak eskatutako identifikazino-datuak emongo dabez, administrazino-izapideak eta baimenak gauzatu ahal izateko, agiri horreek guztiak egunean izateko eta eskatutako epearen barruan emoteko ardureagaz.

**10.5.-** Clubak zehaztutako, adostutako eta eskatutako ordainketak epealdiaren barruan eta araututako moduan egiteko konpromisoa hartzen dabe; egun, ordainketa horreek urteko kuotea eta Gabonetako loteria dira.

**10.6.-** Euren esku dagoan guztietan, taldearen joan-etorrietan modu aktiboan lagundu eta parte hartu, bai partiduetan zein entrenamentu-saioretan.

**10.7.-** Entrenamentu-saioretan zein partiduetan entrenatzaileei, jokalariei, ordezkariiei eta

Klubeko gainontzeko mailetako kideei eskatutako errespetuzko kirol-jarrera berbera bete behar izango dabe.

**10.8.-** Erabat galarazota daukie aldageletan sartzea, baita kirol-eremuan, entrenatzaileek zein ordezkariak horretarako deirik egiten ez badeutsie.

**10.9.-.** Entrenamentu-saioen zein partiduen garapenetan, atsedenaldiak barne, ezin izango dabez entrenatzaileak zein kirolariak aholkatu edo gomendatu, ekintza horreek euren kompetentzia ez diran bitartean.

## **11. Artikulua-** Gurasoen Ordezkariena

11.1.- Gurasoen ordezkariak kirol-taldea osotzen daberen kirolarien familien bozeroaleak dira. Kirol-denporaldi bakotxaren hasieran, taldeko kirolarien guraso guztien artean aita zein ama bat hautatuko da ordezkari legez.

11.2.- Gurasoen ordezkariak honako funtzinoak garatu behar izango dabez;

- Familien eta euren taldeko teknikarien arteko giro egokia suspertu eta danen arteko kolaborazioa bultzatu.
- Klubeko maila desbardinakaz hartu-emon estua izan, batez be Kirol Koordinatzaileagaz, eta sor daitekezan eta euren eskumenekoak diran arazoei urtenbidea emoten lagundu.
- Taldearen jardunaren ganeko etenbako informazioa jaso.
- Zuzendaritza Batzordeak zein jagokon Kirol Koordinatzaileak ditutako batzar guztietara joan eta, holan, taldearen jardunaren ganeko etenbako informazioa ezagutu.
- Gainontzeko gurasoakaz etenbako hartu-emon izan, proposamenak koordinatu eta unean-unean sortzen dan informazioa jaso eta zabaltzeko.

## **III Titulua – Diziiplina-erregimena**

**12. Artikulua-** Araudi hau Klubeko kirolari guztiei aplikauko jake eta araudi honetan arautzen diran arloen inguruko urraketea Klubeko beste edozein kidek egiten badau, aplikazio-eremua zabaldu egin ahal izango da. Klubak bere kideen ganekan daukan diziiplina-agintea barne-arautegi honetan oinarrituta egongo da eta ezin izango da ezelan be kirol-federazioen zein Kirol Diziplinaren Euskal Komitearen aurrean erabili. Klubak diziiplina arloan hartzen dabezan erabagien kontra justizia arruntean baino ezin izango da egin.

**Artículo 13.-** Futbolari guztiek daukiez oinarritzko eskubide eta betebeharrak berberak, adinaren arabera baino aldatuko ez diranak. Euren eskubideen gauzatzeak Klubeko partaide diran gainontzeko kideen eskubideak autortzea eta errespetetea izango dau oinarri eta Klubeko gobernu-organoen zeregina izango da diziiplina-erregimen honetan jasoten diran futbolarien eskubide eta betebeharrak zuzen gauzatzen dirala bermatzea.

## **14. Artikulua - Araudia**

Klubeko partaideen diziplina-erregimena indarrean dagoan legediari lotuko jako, baita bere Estatutuei eta araudi honi be.

### **15. Artikulua** - Gainbegiratzea

Klubeko Zuzendaritza Batzordeko kideek eta, orokorrean, Klubean karguren bat beteten dabenean, batez be Koordinatzaileek eta Teknikariek, atentzino berezia jarriko dabe araudi honetan jasoten diran hutsegiteak saihesteko, etenik bako kontaktuaren eta hartu-emonen bitartez. Ondoren gertatuko danari begiratu barik, teknikariek unean-unean ontzat emoten dabezan erabagiak hartu ahal izango dabez taldearen funtzionamentuan ordena mantenduteko helburuagaz; gero, ezinbestean, Koordinatzaileari komunikatuko jakoz gertaerak eta hartutako erabagiak.

### **16. Artikulua** - Arau-urraketak

#### **16.1.-** Tipikotasuna

Hutsegiteak 1., 2. eta 3. mailakoak izan ahal dira

#### **16.2.-** Honako jarrerak 1. mailako hutsegite moduan hartuko dira:

- Justifikaziorik bako puntualtasun eza.
- Justifikaziorik bako hutsegiteak entrenamentuetara eta partiduetara, nahiz eta ez izan behin eta barriro.
- Aurretiaz abisau ahal izan arren, entrenamentu-saioetara zein partiduetara ez joatea edota beste arazoren bat entrenatzaileari ez komuniketea.
- Kirol-prestakuntzara zuzendutako saioen garapenean zein teknikariek ikaskuntzari zuzenduta eskainitako aholkuen jaramonean parte-hartze pasiboa izatea.
- Taldekideek, Klubeko kideek zein beste edonork kirol-jarduna garatzeko daukan eskubideagazko errespetu faltea, edota entrenamentuetan, partiduetan zein joan-etorrietan gainontzeko futbolariakaz, epaileakaz, entrenatzaileakaz, publikoagaz edo ekintzegaz zerikusia daukan edozein personagaz jarrera desegokia eta errespetu bakoa erakustea, nahiz eta hutsegite arina izan.
- Klubeko zein beste Klub batzuetako azpiegiturak, materiala eta objektuak nahita hondatzea, modu larrian izan ez arren.
- Diziplina faltea, irain- edo laido-ekintza ez larriak.
- Klubeko jarduera arrunta aldarazoten dabenean justifikaziorik bako edozein ekintza.

#### **16.3.-** Honako jarrerak 2. mailako hutsegite moduan hartuko dira:

- Justifikaziorik barik eta behin eta barriro entrenamentu-saioetara zein partiduetara huts egitea.
- Taldeko kideek kirol-jarduna garatzeko daukien eskubideagazko errespetu faltea behin eta barriro erakustea, baita edozein jarrera desegoki eta larri edo errespetu bakoa erakustea, entrenamentuetan, partiduetan zein taldearen joan-etorrietan, beste futbolarien, epaileen, entrenatzaileen, publikoko jentearen edota ekintzeagaz zerikusia daukan beste edonoren kontra.
- Diziplinarik eza erakusten dabenean ekintzak, irainak edota laido-ekintzak Klubeko

- kideen zein Klubeko irudia ordezkatzan daben edozeren edo edonoren kontra.
- Klubeko kideen edota beste edozein Klubetako kideen zein epaile, ikusle eta abarren kontrako eraso fisikoa.
  - Erabilera desagokiaren ondorioz, Klubeko zein beste Klub batzuetako materiala edota azpiegiturak nahita eta modu larrian hondatzea.
  - Klubeko jardura arrunta aldarazoten daben justifikaziorik bako edozein ekintza larri.
  - Denporaldi berean, lehenengo mailako hutsegiteak behin eta barriro egitea.

**16.4.-** Honako jarrerak 3. mailako hutsegite moduan hartuko dira:

- Klubeko kideen edota beste batzuen kontra diziplinarik eza, iraina edo laidoa erakusten daben ekintza oso larriak, zeintzuek Klubaren irudia hondatzen daben.
- Klubeko kideen zein beste Klub batzuetako kideen kontrako eraso fisiko larriak, baita epaileen zein ikusleen kontrakoak be.
- Denporaldi berean, bigarren mailako hiru hutsegite egitea.

**17. Artikulua-** Zigorrak

**17.1.-** 1. mailan tipifikautako hutsegiteak direla eta, diziplina-organoak honako zigor bat edo batzuk ezarri ahal izango ditu:

- Ohartarazpen pribadua.
- Idatzizko ohartarazpena, Zuzendaritza Batzordeak idatzita gordeko dauena eta adinez txikia denaren gurasoei jakinarazoko jakena.
- Egindako hutsegitea konpondu ahal dan kasuetan, behar diran zereginak burutzea.
- Klubaren eta bere komunitadearen aldeko zereginak burutzea.
- Gehienez 8 eguneko epean, kirol-ekintza guztiak gauzatzeko eskubide-etenaldia.

**17.2.-** 2. mailan tipifikautako hutsegiteak dirala eta, diziplina organoak honako zigor bat edo batzuk ezarri ahal izango ditu:

- Justifikaziorik barik behin eta barriro huts egin ezker, ohiko prozedureaz gan, jagoken teknikariak eta entrenatzaileak burututako informe zehatza jasoko daben prozedurea.
- Eragindako kalte materialen konponketara bideratutako zereginen gauzatzea eta, hala behar izan ezker, Klubeko gainontzeko ekintzetan kolaborazino aktiboa izatea, gehienez hilabeteko epean.
- Talde aldaketa.
- Kirol-jarduna gauzatzeko eskubidea edota Klubeko bazkide izateko eskubidea kentzea, kuotei jagoken dirua bueltau barik, gehienez 15 eguneko epean.

**17.3.-** 3. mailan tipifikautako hutsegiteak direla eta, diziplina organoak honako zigor bat edo batzuk ezarri ahal izango ditu:

- Kirol-jarduna gauzatzeko eskubidea edota Klubeko bazkide izateko eskubidearen galera, kuotei jagoken dirua bueltau barik, 30 egun gitxienez eta gehienez eta denporaldi osoa hartu ahal izango dauen epealdian.

- Bide horretan, maila zehatz batean arautu ezin diran jarrerak burutzen diran kasuetan, Zuzendaritza Batzordeak bere interesak defendiduteko helburuagaz eta beti be legeak ezarritakoa betez, unean-unean ontzat emoten dituan izapideak abiarazoteko eskubidea dauka.

**18. Artikulua**– Zuzendaritza Batzordeak hutsaren egileari jarritako zigorra bertan behera geratzea erabagi ahal izango dau, beti be jagokon diziplina-organoari bere eskaerea jakinarazo ondoren eta teknikariak zein Koordinatzaileak idatzitako aldeko informeak eta izapideak kontuan izanda.

**19. Artikulua**- Zigorrak ezartzeko konpetentzia

**19.1.-** Koordinatzailea, Zuzendaritza Batzordearen ordezkariitzepean, 1. mailako hutsegite moduan tipifikautako gertakarien zigorrez arduratzen da, beti be gertatutakoa Zuzendaritza Batzordeari komunikatuz.

**19.2.-** Diziplina Batzordea, Zuzendaritza Batzordearen ordezkariitzepean, Klubeko kideek egin ahal dabezan 2. eta 3. mailako hutsegiteak kudeatzen dabezan organoa da.

**19.3.-** Diziplina Batzorde hori holan dago eratuta;

- Klubeko Presidentea edota bere ordezeko lanak egiten dituan arduraduna.
- Zuzendaritza Batzordeko kide bat.
- Koordinatzaileen eta teknikarien ordezkari bat.

**20. artikulua**- Zigor-prozedurea

**20.1.-**Bigarren edo hirugarren mailako hutsegiteen kasuan, Diziplina Batzordeak bere kideen artean instruktore bat izentauko dau zeinek kasuari jagokon diziplinazko espedientea edegiko dauen. Ondoren, gertakarien erantzulea dan Klubeko kideari karguak jakinarazoko deutsoz, bere berbea, gurasoena edo legezko ordezkariena entzungo dau, baita teknikariena, Koordinatzailearena zein gertatutakoari urtenbidea emoteko lagungarriak izan daitekezan datuak emon ahal dabezan guztiena eta, azkenik, Diziplina Batzordeari aurkeztuko jakon txostena idatziko dau, non zigor-proposamena jasoko dan.

**20.2.-** Presazko zuzentze-neurriak hartu behar izan ezkeru, Diziplina Batzordeak instrukzino-aldia kontuan hartu izan barik jardun ahal izango dau, beti be Koordinatzaileak idatzitako informea oinarri moduan hartuta eta jagokon kirolariari entzunaldia eskaini ondoren, bere guraso edo legezko tutoreen aurrean adinez txikia izan ezkeru. Edozein kasutan, zigorra idatziz jakinarazoko da.

**20.3.-** Diziplina arazoren bat izan daben Klubeko kideek eta, adinez txikiak izan ezkeru, euren guraso edo legezko ordezkariak instruktoreak argudiatutakoari uko egin ahal izango deusie, bere zereginean, jarreran edo jokabidean objetibotasun faltea sumatzen badabe.

**20.4.-** Espedientearen izapideak ahalik eta epe laburrenean adostu beharko dira eta, edozein kasutan, diziplina-eskuhartzea gauzatzea ezin izango dau gertakaria izan eta hurrengo 15 eguneko epea gainditu. Epe horretan, erantzukizunak zeintzuk diran eta horreei jagokezan erabagi-proposamenak jakinarazoko dira. Bigarren eta hirugarren mailako hutsegiteak baliorik barik geratuko dira gertatu eta hiru hilabetera.

**20.5.-** Kargu-orria eta kasuaren ebazpen-proposamena auzipetuari jakinarazoko jakoz eta, adinez txikiak izan ezker, bere guraso edota legezko tutoreei, zazpi egun naturaleko epean beharrezko iruditzen jakiezan arrazoibideak aurkezteko eskubideagaz. Hutsegite larri eta oso larrien kasuan, behin-behineko neurriak hartu ahal izango dira, instruktoreak hala aginduta, Klubeko partaide izateko eskubidea aldi baterako kentzea edo kirol-talde aldaketa, berbarako.

**20.6.-** Zuzendaritza Batzordeak, Diziplina Batzordearen proposamenez, espediente zigortzailearen izapideak ez egitea erabagi ahal izango dau gertaerea berezia dala eretxi ezker.

**20.7.-** Klubeko kideen jokabideak zigortzerako orduan, kasu bakotxean bizi diran egoera personalak, familiakoak zein giza-egoerak kontuan izango dira.

**20.8.-** Diziplina Batzordeak kargu-orrien adierazpenetik eta izapidegileak ebazpen-proposamena aurkezten dabenetik gehienez hilabete epean ebatziko dau espedientea. Ebazpen horri helegitea jarri ahal izango jako, auzipetutako personeak ebazpena jaso eta hamabost eguneko epean, Zuzendaritza Batzordearen aurrean. Azken erabagia batzorde horrena izango da eta Klubarentzat erantzunezina izango da. Edozein kasutan, diziplina arloan Klubak hartutako erabagi guztien kontra egin ahal izango da jurisdikzino arruntean.

#### **IV Titulua -Bizikidetasun arauak eta jarraibideak eta baliabide materialen erabilera**

**21. Artikulua** – Klubak, bere jaubetzen artean, azpiegiturak, bulegoak, kirol-materiala eta beste hainbat baliabide ditu, unean-unean garatuko dan kirol-ekintzearen beharrezanetara bideratuta. Baliabide horreen guztien kudeaketearen ardurea Klubarena da eta bertako kide guztien betebeharra da baliabide horreekazko errespetua erakustea eta berauek zaintzea, ahalik eta ondoen aprobetxau daitezcan laguntzeko eta bermatzeko.

**22. Artikulua** – Kirol-azpiegituren eta materialaren erabileraren zehaztapena

- Talde bakotxak azpiegiturak erabilteko esleitu jakon ordutegia behar dan moduan errespetauko dau.
- Koordinatzailea izango da azpiegituren erabilera eta zaintze egokia bermatzearen arduraduna.
- Talde bakotxak arduradun bat izango dau azpiegiturak erabilten dagoan bitartean.
- Azpiegiturak garbi eta ordenauta izan behar dira; amaieran, argiak amatauta, materiala bere lekuan eta ateak zarratuta egotea bermatu beharko da.
- Momentu horretan arduradun teknikoak holan agintzen ez badau, kirol-materiala

- ezin izango da Klubeko azpieguratatit atara.
- Erabilera desegokiaren ondorioz kirol-materiala apurtu edo galtzen bada, kaltea egin dauen pertsonak jarri beharko ditu baliabideak kaltea konpontzeko edo material barria ekarteko.
  - Kirol-ekintza guztiak orduan hasiko dira eta, amaieran, erabilitako material guztia batu beharko da, jagokon lekuan gorde eta, ondoren, kirolari guztiak duxau eta jantziko dira, ordena mantenduz eta ahalik eta arinen.
  - Kirolariak eta teknikariak Klubak erabagitako erropakaz jantzita joango dira partiduetara, momentu bakotzak eskatzen dabezan baldintzak betez.

## **V. Titulua- Azken xedapenak.**

**1. Azken xedapena** – Araudi hau Klubeko Batzar Orokorrean onartzen dan egunetik aurrera egongo da indarrean.

**2. Azken xedapena** – Araudi honi egin beharreko aldaketak Zuzendaritza Batzordeak proponiduko ditu eta Batzar Orokorrean onartuko dira.

**3. Azken xedapena** – Araudi honen edukiaren edozein interpretazino Klubeko Estatutuen, indarrean dagoan araudiaren zein eskola arloko edo federazino arloko edozein lehiaketatan ezarritako edozein araudiren menpe dago.